tuko irakasleentzat eta irakaskuntzako hainbat kidegotako funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuen zerrenda onartzen duena, eta 41/2005 Dekretua, martxoaren 1ekoa, aurreko Dekretua aldatzeko dena.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara eman eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipaturiko eranskinak (I. eta II. Alezatiak)**

cundaria, de Educación de Personas Adultas, Escuelas Oficiales de Idiomas, Conservatorios de Música de Grado Medio y Escuelas de Artes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, y el Decreto 41/2005, de 1 de marzo, de modificación del Decreto anterior.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de noviembre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

**En Suplemento aparte se publican los anexos que se citan (Fascículos I y II)**

**5847**

387/2005 DEKRETUA, azaroaren 15ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo zikloko, Helduen Hezkuntzako eta Zereginen Ikaskuntzako atalen herri ikastetxeetako maisu-maistren lanpostu zerrendak onartzen dituena.

Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatekoez kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzko II. tituluaren I. kapituluan, lanpostuen zerrendak arautzen ditu, zerrendak egiterakoan bete behar diren oinarrizko printzipioak eta prozedura bideak adieraziz.

Eranskinetan agertzen diren lanpostuak ondorengo parametro hauen bidez identifikaturik daude: espezialitateaz, hizkuntza-eskakizunaz eta derrigorrezkotasundataz. Hizkuntza-eskakizunak martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuak (apirilaren 2ko EHAA), urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuaren bidez aldatua izan denak (urtarrilaren 20ko EHAAn), ezarri zituen hizkuntza-ereduen araberako proportzioetan finkatu dira. Helduen Hezkuntzako ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuak ezartzen dituen irizpideak erabili dira.

**5847**

DECRETO 387/2005, de 15 de noviembre, por el que se aprueban las relaciones de puestos de trabajo de Maestros en Centros Públicos de Educación Infantil y Primaria, primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria, Educación de Personas Adultas y Secciones de Aprendizaje de Tareas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de Enseñanza no Universitaria de la CAPV regula en el Capítulo I de su Título II, dedicado a la estructura y organización de la función pública docente, la figura de las relaciones de puestos de trabajo, señalando con respecto a ella los principios básicos, así como los cauces procedimentales que deben observarse en su elaboración.

Los puestos de trabajo que figuran en las relaciones adjuntas van identificados por los siguientes parámetros: especialidad, perfil lingüístico y preceptividad. Los perfiles lingüísticos se determinan según los modelos lingüísticos en las proporciones establecidas por el Decreto 47/1993, de 9 de marzo (BOPV de 2 de abril), modificado por el Decreto 6/2000, de 18 de enero (BOPV de 20 de enero), que regula su aplicación para puestos de trabajo docentes. Para asignar perfiles a las plazas en centros de adultos, se han seguido los criterios establecidos en el Decreto 182/2002, de 23 de julio.

Ondorioz, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren proposamenez, Euskadiko Eskola Kontseiluaren txostena entzunda eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2005eko azaroaren 15ean egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

*1. artikulua.–* Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpeko Haur eta Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. zikloko, Helduen Heziketako eta Zereginen Ikaskuntzarako atalen herri ikastetxeetako 2005-2006 ikasturteko maisu-maistren kidegoko lanpostuen zerrendak onartzea. Lanpostu-zerrenda hauek II., III., IV., V. eta VI. eranskinetan azaltzen dira.

*2. artikulua.–* Dekretu honetako I. eranskinean azaltzen den herri ikastetxea sortzen da.

*3. artikulua.–* Lanpostu baten irakas-eremua ikastetxe batean baino gehiagotan hedatzen denean, lanpostuak ibiltari bezala sailkatzen dira. Ikastetxeren bat herri desberdinetan kokaturik dagoenean herri batetik bestera doazen irakasleen lanpostuak ere ibiltariak izango dira.

Lanpostu hauek betetzeak arautegiak ezartzen duen bidaia-gastuetarako dirua jasotzeko eskubidea ekarriko du.

*4. artikulua.–* Lanpostuen hornikuntza-sistema lekualdatze-lehiaketa izango da, lanpostu bereziena izan ezik. Azken hauen hornikuntza lehiaketa espezifikoaren bidez egingo da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehenengoa.–* Eranskinetan azaltzen diren lanpostuek honako berariazko osagarria dute:

Maisu-Maistren kidegoa: 708,69 euro / hileko.

Dedikazio bereziarengatik berariazko osagarriari 82,08 euroko kopurua gehituko zaio. Kopuru hori gradua egiaztatzearen ondorioz lortutako lanpostuetan diharduten irakasleek kobratuko dute, ezartzen den prozeduraren arabera.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren I. zikloko lanpostuetan diharduten maisu-maistren destino osagarriari 131,72 euro igoko zaio hilean, Bigarren Hezkuntzako irakasleen zenbatekoarekin berdintzeko.

*Bigarrena.–* Bestalde, zuzendaritza-karguak dituzten maisu-maistrek, honako berariazko osagarria jasoko dute:

a) Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan zuzendaritza-karguak dituzten maisu-maistrak.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Educación, Universidades e Investigación, oído el Consejo Escolar de Euskadi, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 15 de noviembre de 2005,

DISPONGO:

*Artículo 1.–* Aprobar las relaciones de puestos de trabajo reservados a funcionarios del Cuerpo de Maestros, en Centros Públicos de Educación Infantil y Primaria, primer ciclo de Educación Secundaria Obligatoria, Educación de Personas Adultas, Secciones de Aprendizaje de Tareas y las plazas ubicadas en las Delegaciones Territoriales, del curso 2005-2006. Estas relaciones son las que figuran en los anexos II, III, IV, V y VI que se adjuntan al presente Decreto.

*Artículo 2.–* Se crea el centro público que se relaciona en el anexo I del presente Decreto.

*Artículo 3.–* Se clasifican como puestos itinerantes aquellos en que la acción docente se circunscribe a dos o más centros docentes. También se clasifican como itinerantes aquellos puestos que ejercen su acción docente en un único centro, cuando éste tenga sedes ubicadas en dos o más localidades.

El desempeño de estos puestos dará derecho a la correspondiente indemnización por desplazamiento en la cuantía que la normativa establezca.

*Artículo 4.–* El sistema de provisión de los puestos de trabajo será el concurso de traslados, excepto para aquellos puestos calificados como singulares cuya provisión se realizará mediante concurso específico.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.–* Los puestos de trabajo incluidos en las relaciones anexas tienen asignada la cuantía de complemento específico que a continuación se detalla:

Cuerpo de maestros: 708,69 euros/mes.

En adición a esta cuantía existirá un componente de especial dedicación de 82,08 euros, que será devengado por el profesorado en virtud de la acreditación de grado, conforme al procedimiento que se desarrolle.

Además, el complemento de destino de los maestros y maestras que ocupan puesto de trabajo del 1er ciclo de Enseñanza Secundaria Obligatoria, se verá incrementado en 131,72 euros/mes, como equiparación al importe del complemento de destino de Profesores de Enseñanza Secundaria.

*Segunda.–* Los maestros y maestras que ocupen cargos directivos tendrán a su vez el siguiente complemento específico adicional:

a) Maestros y maestras con cargos directivos en centros de Educación Infantil y Primaria.

| Lanpostua<br>*Puesto* | Zenbat gelatako ikastetxea<br>*N.º de aulas del Centro* | Urtean zenbat (eurotan)<br>*Importe anual (en euros)* |
|---|---|---|
| Zuzendaria - *Director/a* A | > 55 | 4.530,86 |
| Zuzendaria - *Director/a* B | > 23 | 4.204,72 |
| Zuzendaria - *Director/a* C | > 15 | 3.140,00 |
| Zuzendaria - *Director/a* D | > 7 | 2.425,01 |
| Zuzendaria - *Director/a* E | > 2 | 1.769,33 |
| Zuzendaria - *Director/a* | ≤ 2 | 950,24 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* A | > 55 | 2.044,68 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* B | > 23 | 1.966,53 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* C | > 15 | 1.966,53 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* D | > 7 | 1.419,04 |

b) Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan zuzendaritza-karguak dituzten maisu-maistrak.

b) Maestros y maestras con cargos directivos en centros de Educación Secundaria.

| Lanpostua<br>*Puesto* | Zenbat gelatako ikastetxea<br>*N.º de aulas del Centro* | Urtean zenbat (eurotan)<br>*Importe anual (en euros)* |
|---|---|---|
| Zuzendaria - *Director/a* A | > 55 | 5.207,10 |
| Zuzendaria - *Director/a* B | > 23 | 4.560,12 |
| Zuzendaria - *Director/a* C | > 15 | 4.208,86 |
| Zuzendaria - *Director/a* D | > 7 | 3.882,71 |
| Zuzendaria - *Director/a* | £ 7 | 2.896,41 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* A | > 55 | 2.896,41 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* B | > 23 | 2.818,25 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* C | > 15 | 2.207,81 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* D | > 7 | 2.207,81 |
| Zuzendaritza-karguak - *Cargos Directivos* | ≤ 7 | 950,24 |
| Mintegi/DBH-ko sailaren burua<br>*Jefe/a Seminario/Departamento* | | 607,85 |
| Koordinatzailea - *Coordinador/a* | | 655,53 |
| Irakasle delegatua - *Profesor/a delegado/a* | | 655,53 |
| DBHko kalitatearen arduraduna -<br>*Responsable de calidad* | | 655,53 |
| Zuzendari albokoa - *Director/a adjunto/a* A | | 2.896,41 |
| Zuzendari albokoa - *Director/a adjunto/a* B | | 2.818,25 |
| Zuzendari albokoa - *Director/a adjunto/a* C | | 2.207,81 |
| Zuzendari albokoa - *Director/a adjunto/a* D | | 2.207,81 |
| Idazkari albokoa - *Secretario/a adjunto/a* | | 1.143,06 |

*Hirugarrena.*– Lanpostuen hizkuntza eskakizunen derrigorrezkotasun-data, dagokien urteko irailaren bata izango da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 2005eko azaroaren 15ean.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

**Ale Gehigarri bereizian argitaratzen dira aipaturiko eranskinak (III. eta IV. Alezatiak)**

*Tercera.*– El vencimiento de las preceptividades de los perfiles lingüísticos asignados a los puestos de trabajo, tendrá lugar el día uno de septiembre del año correspondiente.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor a partir del día de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 15 de noviembre de 2005.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

El Consejero de Educación, Universidades e Investigación,
JOSÉ ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

**En Suplemento aparte se publican los anexos que se citan (Fascículos III y IV)**

## KULTURA SAILA

### 5848

AGINDUA, 2005eko azaroaren 23koa, Kultura sailburuarena, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrietan euskara sustatzeko, garatzeko edota normalizatzeko lanak garatzen dituzten pertsona juridiko pribatuei diru-laguntzak emateko modua arautzen duena.

Euskararen Erabilpena Arauzkotzezko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen laugarren kapituluak, euskal herri-agintariek euskara gizarte-bizitzaren alor guztietan erabili dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliabideak jarriko dituztela dio. Bestalde, Kultura Sailaren egitura organikoa ezartzen duen Dekretuaren arabera, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari dagokio euskara normalizatzeko eta hizkuntza ondarea gero eta aberatsago izateko egon daitezkeen ekimen pribatuak sustatzea eta gizartearen arlo guztietan euskara kultura sortzeko eta transmititzeko hizkuntza izatearen alde lan egitea.

Ahalegin horretan ezinbestekoa deritzogu informazio eta komunikazioaren teknologia berrien ahalbide guztiak aprobetxatzeari; era horretara, hizkuntza garatu, prozesatu eta zabaldu egingo da.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

### 5848

ORDEN de 23 de noviembre de 2005, de la Consejera de Cultura, por la que se regula la concesión de subvenciones a personas jurídicas privadas que desarrollan una labor de promoción, difusión y/o normalización del euskera en el ámbito de las nuevas tecnologías de la información y de la comunicación.

El Capítulo cuarto de la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, prevé que los poderes públicos adoptarán las medidas pertinentes y aportarán los recursos necesarios para la promoción del uso del euskera en todos los ámbitos de la vida social. Por otra parte, de conformidad con el Decreto que establece la estructura orgánica del Departamento de Cultura, corresponde a la Viceconsejería de Política Lingüística el fomento de las iniciativas privadas encaminadas a la progresiva normalización del euskera y al enriquecimiento del patrimonio lingüístico y la potenciación del euskera como lengua transmisora de cultura en todas las áreas de la vida social.

En ese esfuerzo, consideramos imprescindible aprovechar todos los recursos que ofrecen las nuevas tecnologías de la información y comunicación para desarrollar, procesar y difundir la lengua.